

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTZINIEGAKO UDALA

Desjabetzeko administrazio espedientea. Hasierako onespena ematea Las Caserías-ko kutxatila Artziniegako Gordeliz auzoko banaketa sarearekin behe presioan lotzeko proiektuari

Artziniegako Udalak, 2020ko ekainaren 11n egindako osoko bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen:

Lehenengoa. Hasierako onespena ematea Las Caserías-ko kutxatila Artziniegako Gordeliz auzoko banaketa sarearekin behe presioan lotzeko proiektuari, eta hura jendaurrean jartzea 15 egunez. Egun horietan, dokumentua udalaren idazkaritzan egongo da, kontsultatzeko interesa duen edozeinen eskura, eta epe horretan egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkez daitezke.

Honen berri ematea proiektuak eragindako lursailen jabeei, eta jakinaraztea ezen, alegazioak egiteko epea igarota, behin betikoz onetsiko dela proiektua, obrak egitea beharrezkotzat emanda, eta proiektuak berekin dakartzala inplizituki onura publikoaren adierazpena eta eragindako ondasun eta eskubideak okupatu beharra, desjabetze espedienteari hasiera emateko.

Bigarrena. Proiektuak eragiten dien ondasun eta eskubideak desjabetzeko administrazio espedientea hastea, eta interesa dutenei jakinaraztea bidezkotzat jotzen dela okupazioa presakotzat jotzea.

Hirugarrena. Hasierako onespena ematea, desjabetzapenerako, eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari eta horien jabeenari:

ZK.	KATASTRO DATUAK (POLIGONOA-PARTZELA)	TITULARRAK	ERAGINAK			IZAERA	KARGAK
			ERAGINDAKO EREMUA, METRO KOADROTAN	IRAUNKORRA	BEHIN-BEHINEKOA		
1	4-447	Alazne Ascenso Gabiña	47,53	0	0	Hiri finka	Ez daude jasota
2	4-447	Alazne Ascenso Gabiña	24,92	0	0	Landa finka	Ez daude jasota
3	4-448	Alazne Ascenso Gabiña	718,32	0	0	Landa finka	Ez daude jasota
4	4-474	Ana María, María Concepción eta María Rosario Campo Molinuevo.	8,29	0	0	Landa finka	Ez daude jasota
5	4-475	Ana María, María Concepción eta María Rosario Campo Molinuevo.	20,71	0	0	Landa finka	Ez daude jasota
6	4-477	Natividad, Ana María eta Begoña Ribacoba Gorbea	0	1.015,75	0	Landa finka	Ez daude jasota
7	4-490	Julita Llano Villota	65,88	0	0	Landa finka	Ez daude jasota
8	4-492	Encina Terreros Marugay	49,55	0	0	Landa finka	Ez daude jasota
9	4-660	Ayuntamiento de Artziniega	0	8.325,11	0	Landa finka	Ez daude jasota

Norbaitek uste baldin badu ondasun horiekiko benetako eskubide edo interes ekonomikoren baten jabe dela eta berarekin eginbideak bideratu behar direla, jendaurreko epearen barruan eskatu eta behar bezala egiaztatu beharko du, Nahitaezko Desjabetzapen Legearen 4. artikulua araber.

Laugarrena. Jendaurrean jartzea proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen eta haien titularren zerrenda, ALHAOn eta egunkari batean argitaratuz, edozein interesdunek egoki irazitako alegazioak aurkez ditzan 15 egun baldioduneko epean, ALHAOn argitaratzen direnetik aurrera, zerrendan egon daitezkeen hutsak zuzendu ahal izateko. Hori guztia, Nahitaezko Desjabetzapenaren Legeak 17. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorritz.

Bosgarrena. Zuzenean jakinaraztea erabaki hau proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen titularrei, jakinarazpena jaso eta 15 eguneko epean egoki iritzitako alegazioak egin ahal izan ditzaten; izan ere, hutsen bat badago ondasun eta eskubideen zerrendari edo haien titularrei buruz, nahiz onura publikoaren adierazpenari eta okupatzeko beharrari eta desjabetzapenerako premiari buruz, zuzentzeko aukera egongo da.

Adierazitako epean erreklamaziorik ez badago, behin betiko onartuta geratuko da eskubideen eta ondasunen zerrenda zehatza, onura publiko adierazpena eta presaz okupatzeko beharra, eta interesdunei gonbita egiten zaie prezio bat proposa dezaten jabetza eta aldi baterako okupazioa elkarren arteko adostasunez eskuratzea ahalbidetzeko.

Seigarrena. Amurrioko jabetza erregistratzaileari eskatzea ziurtagiria eman dezala, desjabetze espediente honek eragindako lurren erregistro finkek dituzten jabariak eta kargak egiaztatzen dituena, eta orri bazterretan idatz dezala desjabetze espedientea hasi dela.

Zazpigarrena. Alkatea gaitzea prozedura honen izapideekin jarraitzeko beharrezko ekintzak egiteko eta, batez ere, lurren eskubideak dituzten titularrekin batera berehalako okupaziorako erabakiak hartzeko.

Zortzigarrena. Erabaki honen aurka ezin daiteke inolako errekurtsorik jarri, izapide hutseko egintzak baitira. Nolanahi ere, egoki iritzitako ekintzei hel dakieke.

Guztiak jakinaren gainean egon daitezen argitaratzen da.

Artziniega, 2020ko uztailaren 10a

Alkatea

JOSEBA VIVANCO RETES